

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua  
LUIS VILLASANTE

Idazkaria  
JUAN SAN MARTIN

1974 – II - 22

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko otsailaren 22an, arratsaldeko lauta laurdenetan, bilbu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, A. Arrue, A. Irigoyen, P. Lafitte, eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. Berrojalbiz, N. Etxaniz, J. Fernández Setien, Salvador Garmendia X. Kintana, J.L. Lizundia, J.A. Loidi eta J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga eta Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko agiria onhartzten da.

Euskaltzainburuak René Lafon Euskaltzain jaunaren hil-berria eman du. Piarres Lafitte jaunak, René Lafon zenak gaixotegitik egin zion azken gutuna irakurtzen du, eta Lafon-en bizitza eta lanen berri laburra adierazten du. Otsailaren 4an, astelehen arratsaldez, hil zen. Bere lanen bibliografia osatu baten berri ematen du, bilduma baten premia adiaraziz. Ondorean Haritschelhar jauna, Lafon-en lekuko bezala mintzo da. Hark egindako linguistika lanak goratzen ditu eta hark Bordeleko Unibertsitatean sortu zuen euskal ikasgoaren oroiz. Haritschelhar jaunari euskaltzain sarreraz eskaini zizkion hitzak gogorazten ditu "Gure Herria"n (1963) argitaratu zen hitzaldiaren zati bat irakurriaz.

Ondorean, euskaltzainburuak euskaltzain baten hutsunea adierazten du. (Hola jakinarazten da, Arautegiaren 33. artikulua eskatzen duen bezala).

a) **HAR-EMANAK:**

J.M. Lojendio jaunaren gutuna, jaso dituen doluminen eskergarri.  
Bihar, Iruñian, Banço de "La Vasconia" k argitaratu digun **Merkatalgo izendegia**-ren agerpena egingo dela aditzera ematen da. Joan nahi duenari dei egiten zaio.

José Cerio Ogeta jaunaren gutuna, Gerona-tik, Larramendiren hiztegia eskaintzen du 10.000 pezetan, norbaitek nahi balu.

Caja de Ahorros Vizcainak, "Toribio Alzaga" antzerki saria 50.000,- pezetara jasotzen du.

Bizkaiko Diputazioak Departamento de Estudios Vizcainos sortzea erabaki duela, Deustuko Unibertsitateari erantsirik, aditzera eman da. Bertan izango diren ikasgoak: Euskal linguistika, Bizkaiko historia eta Bizkaiko Foruak izango dira. Gai honi buruz, A. Irigoyen jaunak zenbait xehetasun eman ditu. Bizkaiko Diputazioari erabaki honegatik, Euskaltzaindiak zorionak bidaltzea erabaki da.

**HARTU DIREN LIBURUAK:** Gero argitaldaria emanak, Lourdes Iriondoren **Hego haizearen ipuiak** eta Mikel Ugaldere **Langileria historian zehar (II)**; Cinkak-k Irakasle Talde Batek gertatutako **Euskalduntzen - 3**; J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak bere **Solsticio de invierno**, "Diario de Navarra" argitaldaria agertua; J.M. Satrustegi jaun berak Lewis Carrol-en **Alizia** izeneko ipuiak, berak itzuliak, Albert Rué-ren marrakiz Abadia de Monserrat-ek argitaratuak; eta Piarres Lafitte euskaltzain jaunak bere "Le Père Blaise de Mendionde, capucin et auteur basque (1873-1914)", **Gure Herria**-k argitaratua.

b) **GOIZEKO BILERA, "EUSKERA" ALDIZKARIKO BATZORDEARENA:**

1973 alea inprimerian dago, laster argitaratzeko zorian.

1974ko "EUSKERA" alearen antolaketaz era honetara hornitzea erabaki da: I - **Gai nagusiak**, P. Lafitteren "René Lafon", E. Erkiagaren euskaltzain sarrera hitzaldia "Eusebio M<sup>a</sup> Azkue"ri buruz, J. Gorostiagaren erantzuna eta J. Amurizaren "Aurrizkiak". II - **Gai laburrak**, J. Garateren "Carta de citra-tumba a don B. de Etxegaray", A. Zatarainen "i letraz bukatzen diren itzak", "ar bukaerak" eta "Edur, erur, elur, zein zaarrena?", eta 1973ko batzar hitzaldiak eta txostenak kronolojia ordenaz. III - **Euskaltzaindiaren agiria**, a) Barne erregelak (hiru hizkuntzaz),

b) Eskola hiztegia, d) Irakasle titulua lortu dutenak, e) Batzar-agiriak (1973). IV - **Berriak**, Sabandon Gamiz-en gorasarrez, Donibaneko Euskal Unibertsitatean, Axularri gorasarrea Iruñan, **Hil-berriak**.

Euskaltzainburuak, geroagorako, Lafon jaunari omenezko bilduna bat egiteko asmoa agerrerazten du.

d) **“ALDE, OSTE, GARAY eta USA”**, hitzen jatorriaz A. Irigoyen jaunak irakurtzen du txostena. Alde, Aldairen beste zentzu bat agerrerazten du; Oste denborazko eta lekuzko bezala; garai, Kala, Calagurris, Kalamendi-ren arteko kidetasunak; eta Usa, Usie-ren jatorriaz edo agiri zaharrak agerrerazten ditu.

e) **GIPUTZ EUSKARAREN TESTU ZAHAR BAT**, XVI. mendeko poema filo-heroiko baten zatia eta adiarazpena, Salinasko kondeari Donostiako itsas gonbateaz, G. Arestiren txostena, bere ezin etorriagatik A. Irigoyen jaunak irakurtzen du. A. Otazuk aurkitua da 1626ko esku-izkribu batean eta 1500garren urte ingurukoa dela uste da. Laburra da, baina oso garrantzitsua bere laburtasunean.

**f) BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

Donostian beren ikasketak egiten ari diren gazte talde batek, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País elkargoaren Boletinaren eraskin bezala **“Elhuiar”** izeneko teknika aldizkari bat argitaratzeko asmoa dute eta Euskaltzaindiari bere babeseren eskaria egiten diote. Ontzat hartu da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua

Idazkaria

LUIS VILLASANTE

JUAN SAN MARTIN